

# GOBERNANTZA DEMOKRATIKOA EUSKAL LURRALDEEN KOHESIOA ETA ELKARKIDETZAREN IKUSPEGITIK

## Laburpen exekutiboa

Liburu berdeak aukera eman digu gure artean solas egiteko urteetan bereizten gintuen gai baten inguruan: Euskal Herriaren egituraketa politiko-soziala.

Hori posible izan da Eusko Ikaskuntzaren mendeurrena ospatzeko XVIII Kongresuak atzerako begiradak eskaintzen duen perspektibarekin etorkizunari begira solas egiteko esparru egokia eskaini digulako eta gure gogoetak eta eztabaidak bide komun baten inguruan ardazteko proposamenari heltzen jakin izan dugulako: euskal lurraldeen kohesioa eta elkarkidetzeta. Xede horren inguruan plazaratu ditugu batzuek eta besteek gura kezka, gure nahiak eta gure ilusioak.

Lanketa hau modu progresiboan eta metatuan burutu dugu modu kolaboratiboan identifikatutako gaien inguruan sakontze mintegi desberdinak gauzatuz:

1. Lurraldetasunaren kontzeptualizazioa.
2. Kokapen teoriko orokorra: Euskal lurraldea(k) mundu garaikidean.
3. Lurraldetasuna: Euskal lurraldeen artikulazio juridiko-politiko-administratiboa.
4. Euskal lurraldeen territorioak: kohesioa eta identitateak.
5. Euskal lurraldeak: eremu fisikoa eta lurralde garapena.
6. Gizarte Foroa: lurraldea eta lurraldetasuna, kontzeptu mapa eta diagnosiaren kontrastea.
7. Uda Ikastaroa: Kohesioa eta bizikidetzeta: euskal lurraldeak eta lurraldetasuna XXI. Mendean.

Gogoeta azken mendean euskal herritarrok lortutako erabakitze gaitasunaren azterketa du abiaburu. Azterketa horretan azpimarratu da euskal herritarrok gure erabakitze gaitasuna baldintza berrietan gauzatu beharko dugula. Mundu globalizatuan bizi gara eta horrek aukera berriak zabaltzen dituen moduan (merkatu globalean parte hartzeko aukera, informazioa eta ezagutza globala eskura jarri, komunikazioa eta harremanak erraztu, erronka globalak hobeto identifikatzen lagundu...), mugak eta arriskuak ere badakartza: erabakiak non eta nork hartzen diren lausotzen ari da, defizit demokratikoa handitzen, ziurtasun eza orokortzen eta zalantza bizitzako esparru guztietara zabaltzen.... Horrekin batera, estatuetan prozesu birzentralizatzailea gertatzen ari da eta horrek euskal lurraldeetan dagoen erabakitze gaitasunaren ahuleziaren sintomak agerian uzten ditu: berme falta; euskal zuzenbidearen lehentasuna ahultzen ari da; erakunde gaitasun politikoa murrizten, finantza autonomia higatzen... eta horren guztiaren ondorioz euskal demokratizazio prozesua geldiarazteko arriskua dago.

Muga eta arrisku horien aurrean, alabaina, bide eta aukera berriak ikusten dira, giza eskubideen baloreen eta demokraziaren inguruko kultura partekatuen eskutik. Erabakitze eskubidearen paradigma berriaz solas egin da eta horren bidez gaitasun politikoa handitzearen beharraz; subiranotasunaz eta estatu izaera berme gisa; erakunde sendoen beharra ikusi da eta ongizate estandar propioak lantzea eta garatzea.

Euskal lurraldeak beste instantzia zabalagoekin dituzten harremanak ere gogoeta gai izan dira gure solasaldietan. Euskal lurraldeen kohesioa eta elkarkidetzaz xede izanik, hainbat galdera izan ditugu mahai gainean solas egiteko: nola eta noraino da egokia Espainia eta Frantziarekin euskal lurraldeetako erabakitze gaitasuna partekatzea? Euskal lurraldeen arteko kohesioa eta elkarkidetzaz sendotu dadin, zein baldintzetan gertatu behar da partekatze hori? Zer nolako erabakitze gaitasuna behar dute euskal lurraldeek euskal komunitate globalarekin harremanak sendotzeko?

Kezken artean azaldu da gaur egungo Estatuetik harreman sistemetan ez zaiela euskal lurraldeetako erakundeei berdintasun politikoa aitortzen Estatu zentraleko eta mugatu dela kanpo ekintzarako eta nazioarteko harremanetan euskal lurraldeen erabakitze gaitasuna. Gaitasun hori ez edukitzea gaurko mundu globalizatuan arazo gisa ikusten da, baita euskal lurraldeen arteko harremanak egituratzeko ere. Defizit horiek indartu egiten dute euskal lurraldeek “estatus politikoa berezia” izateko eskakizun historikoa eta bide hori egungo euskal lurraldeen instituzionalizatzeko maila desberdinetatik abiatu behar dela partekatzen da. Aukerak ezberdinak ikusten dira, baita gaur egungo marko politikoaren barruan ere; izan ere, hainbat aukera oraindik jorratu gabe daudela aipatu da eta euskal foru filosofiak eta demokrazia printzipioak bide ematen du horretarako, besteak beste.

Illo beretik, euskal lurraldeek Europar Batasunean parte hartzeko dituzten mugak ere partekatu dira eta hainbat aukera dagoela muga horiek gainditzeko ere bai.

Euskal demokrazia edo, bestela esanda, demokrazian gobernatzeko euskal ereduak ere izan dugu elkarriketa-gai Liburu Berdean, “euskal gobernantza modernoaren garapena” izenburu hartuta. Lurralde banaketa instituzionala eta unean uneko egoeretara egokitze gaitasuna (erresilientzia) izan dira gaur egungo euskal lurraldeen gobernantza-ereduaren ezaugarri batzuk. “Euskal Herria, Euskadi eta Nafarroa edo Baskonia” deituriko lurralde egituraketaren garapena ezegonkorra eta gorabeheratsua izan dela aintzat hartuta, azpimarratu da euskal gobernantzan hainbat eragilek parte hartu dutela (erakundeak, gizarte zibilak...) eta haien arteko elkar eraginari esker -batzuetan liskartsua eta ez arautua izan dena- euskal gobernantzaren ereduak osa dezaketen elementuak edo osagaiak azaldu zaizkigu. Osagai horien bidez teknokrazia eta merkatuak nagusiki gidatutako gobernantza ereduak orekatzen saiatu izan dira euskal eragileak. Honako hauek dira euskal gobernantzaren elementuak edo osagai horiek: gobernantza publiko-pribatua (eragile sozio-ekonomikoen partaidetza posible egiten duena), gobernantza publiko-herritarra (berdintasuna areagotze aldera, herritarren eskariak sisteman barne hartzeko eta esparru publikoaren kontrola egiteko tresna partehartzaileak dituena) eta euskal lurraldeen arteko gobernantza horizontala (lurraldeetako eragileen elkarriketa sustatzen duena, lurraldearen kohesioa eta oreka nahiz komunitatearen onura sustatzen duen lurralde-garapena lantzen duena). Osagai edo elementu horiek guztiak gobernantza demokratiko eredu propio batean behar bezala uztartzeko antolakuntza kultura berri bat eta kultura partehartzailean sakontzeko beharra ikusi da.

Bukatzen joateko, euskal lurraldeak egituratzeko eta beren arteko harremanak sendotu eta indartzeko sistemak ere mintzagai izan ditugu. Eztabaida dago egungo estatus politikoa berezituaren zilegitasunaren oinarria zen den. Batzuentzat, Nafarroako erresumako estatu izaera da, beste batzuentzat Nafarroaren konkistaz geroztik euskal lurraldek lortutako foru araubidearen ondorio. Zalantzan ez dagoena, ordea, euskal lurraldeen autogobernu modernoaren printzipio demokratikoan oinarritzen dela, hots, lurralde horietako herritarren borondate demokratikoan.

Euskal Herriko lurraldetasuna antolatzeari begira azpimarratu egin da bi printzipio daudela euskal tradizio eratzailan, modu batean edo bestean, eztabaida honetan azaltzen ohi direnak: lehena, “lurraldetasunaren printzipio irekia”, hau da, lurralde batzuek besteei aukera luzatzen dietela haiekin bat egiteko beren herritarrek libreki hala erabakiz gero; eta bigarrena, “harreman federal kontsoziatiboa”, hau da, beren arteko harremanak subsidiaritate printzipioaren arabera antolatzen direla, baina erabaki-prozesuetan lurraldeen arteko adostasunezko mekanismoei lehentasuna emanez, goitik behera agintzeko tresnei baino lehen.

Euskal lurraldeen arteko egituratze sistemak antolatzeari dagokionez herritarren borondate demokratikoari bide emateko orduan, aukera desberdinak egon daitezke: Euskal eta Nafarroako autonomia erkidegoen arteko hitzarmenak, egituraketa partekatuari heltzea Espainiako Konstituzioaren IV. Xedapen Iragankorra erabiliz, mugaz haraindiko lankidetzak tresnak, lurralde lankidetzarako tresna bigunak erabili, Europar mailan estatus berezia izango lukeen eskualdea izatea, Euskal estatua bihurtzea... Nolanahi ere, euskal lurraldeek estatus politiko berezia partekatze aldera, gaur egun dauden hainbat zailtasunei aurre egiteaz gain (eskumen maila desberdinak, ...), ezinbestekoa litzateke lankidetzan eta parte hartzean oinarritutako gobernantza kultura komuna partekatzea, askotariko eragileak erabakitzeko prozesuetan behar bezala kateatuz eta saretuz. Xede horri begira, badira lankidetzak eragile batzuk Euskal Herrian beren esperientziatik edan daitekeena (EUDEL, UDALBILTZA, ...).

## 5 gai mahai gainean solaserako

1. **Euskal lurraldeen erabakitzeko gaitasuna. Erabakitzeko gaitasuna baldintza berrietan garatu behar da gaur egun eta pairatzen diren ahuleziak gaitatzeko badira hainbat indar gune eta aukera.**

Galderak: Nola indartu euskal lurraldeen erabakitzeko gaitasuna? Nola bermatu?

Hainbat kontzeptu ezbaian: demokrazia eta demokratizatze prozesuak, gaitasun politikoa, erakunde sendoak, estatu-subiranotasuna, erabakitzeko eskubidea, ongizate estandar propioa, ...

2. **Euskal lurraldeen harremanak instantzia politiko zabalagoekin. Harreman horiek euskal lurraldeen erabakitzeko gaitasuna sendotzeko balio behar dute.**

Galderak: Nola eta noraino partekatu euskal lurraldeen erabakitzeko gaitasuna instantzia politiko zabalagoekin (Estatuekin, Europar Batasunarekin eta nazioarteko erakundeekin)? Zeintzuk dira erabakitzeko gaitasuna partekatzeko baldintza egokiak euskal lurraldeen kohesioa eta elkarkidetzaren ikuspegitik?

Hainbat kontzeptu ezbaian: erabakitzeko gaitasunaren partekatzea, zilegitasun demokratikoa, nazio-aniztasuna, federalismoa, bitariko harreman parekidea (aeque principaliter), euskal estatus politiko berezia, foru-filosofia, botere judiziala, nazioarteko harremanak, nazioarteko harreman informalak, Europar Batasuna, Europar Batasunean parte hartzeko mugak eta aukerak, euskal komunitate globala,

...

3. **Euskal gobernantza demokratikoa. Euskal lurraldeetan erabakiak hartzeko sistemak antolaketa kultura parte hartzaile berria eskatzen du.**

Galderak: Euskal lurraldeen arteko aginte sistema lortzeko izan den bide malkartsu eta desorekatu horretatik, irakaspenik atera al da? Nortzuek eta nola parte hartu behar dute erabaki publikoak hartzeko orduan euskal lurraldeen arteko kohesioa eta elkarkidetzak sendotzeko? Zeintzuk dira tresna egokiak erabakiak hartzeko euskal lurraldeen garapen orekatuari eta partekatuari begira? Nortzuek hartu behar dute parte erabakitzeko prozesuetan eta nola?

Hainbat kontzeptu ezbaian: Euskal demokrazia, euskal gobernantza, demokratizazio prozesuak, erresilientzia, gobernantza ereduak, gobernantza publiko-pribatua, gobernantza publiko-herritarra, gobernantza horizontala, antolaketa kultura, kultura parte hartzailea,...

4. **Euskal lurraldeen egituraketa eta kohesioa. Euskal lurraldeak egituratzeko aukerak eskura badira, baina lankidetzak eta parte hartzeko kultura komuna lantzea da erronka.**

Galderak: Zeintzuk dira euskal lurraldeak egituratzeko eskura ditugun tresnak? Zeintzuk dira beharko genituzkeen tresnak? Nola landu eta garatu dezakegu lankidetzan eta parte hartzean oinarritutako kultura partekatu bat euskal lurraldeen lankidetzak eta elkarkidetzak xede dituenak?

Hainbat kontzeptu ezbaian: lurraldetasuna, adostasuna, lankidetzak tresnak, erakundetze partekatua, subsidiaritatea, euskal federalismoa, euskal estatua, maila anitzeko gobernantza, gobernantza kultura partekatua, lankidetzak, parte hartzea, lankidetzak eragileak/sustatzaileak ...

5. **Euskal lurraldeen arteko desorekak, lurralde-ardatzak, sinergiak eta tresnak.**

Galderak: Euskal lurraldeen kohesioa eta elkarkidetzak indartzeko, zeintzuk dira ditugun ahuleziak eta indarguneak? Kohesioa eta elkarkidetzak indartzen duten lurralde-ardatzak nola indartu daitezke? Nola lortu kohesioa eta elkarkidetzak indartzen duten elementuen arteko sinergia egokiak? Zeintzuk izan daitezke tresnak?

Hainbat kontzeptu ezbaian: lurralde egituratzeko ereduak (behetik-gora edo goitik-behera; logika zentripetuak edo zentrifugoak); lurraldearen garapen-eredua; giza-garapena lurralde-gaitasun ahulezia; lurraldearen ongizatea; kohesioa; euskal lurraldetasuna; kohesiorako lurralde-ardatzak (kulturalak, sinbolikoak, euskara, sozio-ekonomikoak, hezkuntzakoak, unibertsitatekoak ...), kohesiorako tresna berriak